

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

210/2021 Foru Agindua, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuarena, uztailaren 30ekoa, Arratzua-Ubarrundiako (Mendibil) Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntualari buruzko ingurumen txosten estrategikoa egiten duena

Erreferentziatzko aldaketa puntualaren izapidetzea ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozeduraren menpe dago; prozedura hori Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak arautzen du.

Prozedura horren esparruan, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak ingurumen dokumentu estrategikoa jaso du, Arratzua-Ubarrundiako Udalak bidalita, indarreko hiri antolamenduko plan orokorraren (HAPO aurrerantzean) aldaketa puntualari buruzkoa, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak araututako gutxieneko edukien arabera; hirigintza dokumentua ere jaso du.


ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, agiri horiek jaso ondoren, hasiera eman zion eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egiteko faseari, aipatutako araudian ezarritakoaren arabera. Kontsulta epea hilabetekoa izan zen.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen txosten estrategikoa 2021eko uztailaren 27an eman zuten Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak (21/44 espedientea).

1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatutako eremu geografikoa. Aztertutako aukerak

1.1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena eta ebaluatutako eremu geografikoa:


Enpresa batek interesa dauka Mendibilgo 3 poligonoko 1295 lurzatian basoko landare autoktonoen mintegi bat ezartzeko. Horren ondorioz, Udalak HAPOaren aldaketa sustatu du, 3 poligonoko 1290, 1291, 1292, 1293, 1294, 1295, 1296, 1297, 1298, 1299, 1300, 1301, 1302, 1303, 1304 eta 1305 lurzatietan aldaketa hori egiteko. Lurzatiak A-3002 errepidearen eta Zadorra ibaiaren artean daude, Mendibilgo biztanlegunearen hegoaldean:



Lurzati horiek aldaketa puntualaren eremuaren barruan atxikita daude

Gaur egun lurzatiak Arratzua-Ubarrundiako HAPOaren kategorია hauetan daude sartuta:

- “J.1.7. Babes bereziko zona: azaleko urak”
- “J.1.4. Babes bereziko zona: baso balioa”
- “J.2.4. Zaindutako zona: baso interesekoa (zati oso txiki bati eragiten dio aldaketa puntualaren eremuan).
- “J.2.2. Zaindutako zona: interes historiko eta kulturalakoa” (Mendibilgo iturria).
- “H.2. Zerbitzuetarako azpiegiturak”



Oraingo zonakatzea HAPOaren arabera: Beltzez mugatu da aldaketa puntualaren eremuko lurzatiaren perimetroa eta gorri mugatu da kategoría aldatuko litzatekeen eremua

Aldaketak bakarrik eragingo lieke gaur egun “J.1.4” eta “J.2.4” kategorietan sartuta dagoen lurzatiaren aldeari, eta “J.1.7 Babes bereziko zona: azaleko urak” orain dagoen bezala geratuko litzateke. Proposamenaren arabera, oraingo “J.1.4” eta “J.2.4” zonak “J.2.5 Zaindutako zona: nekazaritza eta abeltzaintza interesekoa” kategorian sartuko lirateke.

Kategoria berri horretan, baimendutako erabilera nabarmen malgutzen dira oraingo egoeraren aldean. Erabilera hauek baimenduko lirateke, besteak beste: eraikinak, nekazaritza eta abeltzaintzako jardueri lotutako eraikuntzak eta instalazioak, berotegiak, mintegiak, abeltzaintzako jarduera bereziak, nekazaritza eta abeltzaintza edo basogintzako ustiatuei lotutako etxebizitza eraikinak, eta nekazaritza turismo eta landa kanpineko establezimenduak.

1.2. Aztertutako aukerak:

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan azaltzen denaren arabera, guztira bi aukera hartu dira kontuan:

“1” aukera edo oraingo hirigintza egoerari eustea (ez da hautatu): Indarreko plan orokorrak jasotako oraingo egoerak kategoría hauek proposatzen ditu lurzati horietan: “J.1.4 Babes bereziko zona: baso balioa”, “J.1.7 Babes bereziko zona: azaleko urak”, “J.2.4 Zaindutako zona: baso interesekoa”, “J.2.2 Zaindutako zona: interes historiko eta kulturalakoa” eta “H.2. Zerbitzuetarako azpiegiturak”.

“2” aukera edo oraingo egoera fisikoari eustea (hautatua): Proposamen honek aipatu lurzatiaren “J.1.4” eta “J.2.4” kategoriak “J.2.5. Zaindutako zona: nekazaritza eta abeltzaintza interesekoa” kategoriaratu aldatzea proposatzen du; horrela beste erabilera batzuk baimenduko dira lurzatiaren; izan ere, nekazaritzakoak baino ez dira, baso elementurik gabek.

2. Kontsulta fasearen laburpena

2021eko apirilaren 29an, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak abian jarri zuen eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko fasea, araututako prozedurari jarraiki. Taula honetan kontsulta egin zaien erakunde, entitate eta elkarteak agertzen dira, bai eta haietatik zeinek erantzun duen ere:

URA Uraren Euskal Agentzia	✓
Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza	✓
Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	✓
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzako Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza	
EEE-Energiaren Euskal Erakundea	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN-Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza Natura Elkartea	
GAIA elkarte	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA-Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartea	
HOBE-Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	
Arabako Kontzejuen Elkartea	
SEO Bird Life	
Aranzadi Zientzia Elkartea	
Mendibilgo Administrazio Batzarra	
Arratzua-Ubarrundiako Udala	
Gorbeialdeko Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	✓
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	✓
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	✓

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoaren laburpena (alegazio edo gogoeten kopia osoa dago Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 21/44 espedientean eta www.araba.eus):

- URA Uraren Agentziak txostena igorri du eta adierazi du eskaera Ebroko Konfederazio Hidrografikoari helarazi diola, egokituz joz gero gaiaren gaineko txostena egin dezan, bat etorritz Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatutakoarekin.

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazi du aldaketa puntualaren eremuan badagoela hirigintza plangintzan toki mailan babesa merezi duen interes arkitektoniko elementu bat: Mendibilgo iturria (53. zenbakiko fitxa). Dioenez, tokiko intereseko ondasun bat denez, udalaren irizpidearen arabera hartu behar dira erabakiak, baina gomendatzen du egingo den obraren faseetan arreta berezia jartzea lanek elementua kaltetu ez dezaten. Azkenik, adierazi du 6/2019 Legearen 74. artikulua bete beharko dela kasualitatez aztarna arkeologikoak aurkitzen badira.

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak proposamenaren laburpena egin du, bai eta natura ondarearen gaineko eraginaren azterketa ere. Lehenik,

honako hau adierazi du: “aldaketa puntualaren eremua gutxienez joan den mendeko erdialdetik erabili da nekazaritzarako, dauden erregistro ortografikoek erakusten dutenez”. Bigarrenik, ingurumen dokumentu estrategikoan Natura 2000 Sareko Zadorra ibaia KBEa ibai espazioaren gaineko eraginari eman zaion tratamenduari urria deritzo. Nolanahi ere, hau ondorioztatu du: “aldaketak antzinatek nekazaritzako erabilera jasotzen duen eremu bati heltzen diola ikusita, zuzendaritza honen ustez, lurzati horietan Udalak proposatu duen kalifikazio aldaketa bateragarria da natura ondarea oro har zaintzearekin, eta bereziki Zadorra ibaia Kontserbazio Bereziko Eremuarekin (KBE hemendik aurrera). Azkenik, eta gomendio gisa, aipatu du Arratzua-Ubarrundiako HAPOak baldintzatzaile gehigarri gisa identifika litzakeela KBEak zein haien inguruko babes eremuak, eta eremu horietan garatzen diren planak, programak eta proiektuak Natura 2000 Sarearen gainean ebaluatu behar direla adierazi.

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak emandako txostenean, aldaketa puntualaren proposamenaren laburpen bat egin ondoren, adierazi du proposatutako erabilera aldaketek bat etorri behar luketela EAeko nekazaritza eta basogintzako lurralde plan sektorialaren (LPS hemendik aurrera) kategoriekin eta kartografiarekin. Txostenean erantsi den LPSko sailkapen irudi batean erakusten denez, “erabilera balio estrategiko handiko’ lurzoruetara aldatu behar litzateke gehien bat, eta sailkapen horretan ‘trantsizioko landa paisaia’ gisa agertzen diren eremuak sar daitezke, uste bada horrela planoak hobeto egokituko direla errealitatera”. Basoko mintegi bat ezartzea LPSren 28. artikuluan jasota legoke, eta 62. artikuluko erabilera matrizearen arabera, hasiera batean, erabilera onargarria litzateke “balio estrategiko handia” kategorian.

- Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak bere txostenean dioenez, proposatutako aldaketak ez dauka eragin arkeologikorik eta, beraz, ez da esku hartze arkeologikorik behar.

- Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak hau dio bere txostenean: “ikusita da aldaketa proposatzen den eremuan ez dagoela kultura ondasun izendatutako elementurik, baina Mendibilgo iturria (ARU-17 kodea) dago, eta kontuan hartu behar da izapidetzen ari den plangintzan era egokian txertatzeko”.

3. Eragina jaso lezaketan elementuetatik zeintzuk diren ingurumen balio handienekoak. Aldaketa puntualaren ingurumen inpaktuak

Jarraian, ingurumen balio handiena duten elementu edo espazio nagusiak zerrendatzen dira, aldaketa puntualaren eremutik hurbil edo haren ondoan daudenak, eta, ondorioz, eragina jasan dezaketenak:

- Natura 2000 Sareko Naturagune Babestua, Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE): Zadorra ibaia (ES2110010), Arabako Lurralde Historikoko bost ibai Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen dituen Eusko Jaurlaritzaren martxoaren 17ko 35/2015 Dekretuaren bidez izendatua. Eremuaren babesa martxoaren 17ko 34/2015 Dekretu bidez arauturik dago; dekretu horren bidez ingurune hidrikoari lotutako KBEetarako arau orokorrak onartzen dira. Zadorra ibaia KBEa kudeatzeko jarraibide eta neurrien behin betiko onespena Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 10eko 122/2015 Erabakiaren bidez eman zen.

Aldaketa puntualaren eremua Zadorra ibaia KBEaren inguruko babes eremuaren barruan dago.

- Zadorraren ibai eremua Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezien eta Bikainen Katalogoaren barruan dago, paisaiaren aldetik dituen merituak direla eta (Diputatuen Kontseiluaren irailaren 27ko 829/2005 Erabaki bidez onetsia):

- “Zadorra garaia” paisaia bikaina (30 kodea).

– Orobat, aldaketa puntualaren eremuaren ondo-ondoan dagoen inguruan, Zadorra ibaia Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoak katalogatutako fauna espezieen babes bereziko eremua da, eta espezie horiek Arabako Lurralde Historikorako euren kudeaketa planak dituzte (espezie bi “galzorian” eta bat “kaltebera”):

<i>Mustela lutreola</i>	Bisoi europarra	Galzorian	322/03 Foru Agindua, azaroaren 7koa (2003ko abenduaren 5eko ALHAO, 142 zk.)
<i>Lutra lutra</i>	garaba	Galzorian	880/04 Foru Agindua, urriaren 27koa (2004ko azaroaren 24ko ALHAO, 136 zk.)
<i>Riparia riparia</i>	Uhalde enara	Kaltebera	22/2000 Foru Dekretua, martxoaren 7koa (2000ko martxoaren 27ko ALHAO, 37 zk.)

Egia da aldaketa puntualaren eremuarekin muga egiten duten edo hurbil dauden ingurumen balio handiko elementuak eta espazioak nabarmenak eta oso aipagarriak direla, baina uste da aztergai dugun aldaketa puntualak ez diela ingurumen eragin kaltegarrik eragingo, aplikatu beharreko arloko araudia errespetatzen bada, hark ezartzen dituen atzeratzeak barne, eta ingurumenean integrazeko neurri egokiak ezartzen badira.

Azpinarratu behar da aldaketa puntuala eragindako lurzatiek gaur egun duten erabileretarako doikuntza gisa uler litekeela. Gainera, kontuan hartu behar da aldaketa puntuala jasoko duten lurzatieta nekazaritzako erabilerak erregistro ortofotografikoen bidez jasota daudenetik garatu direla. Halaber, nekazaritzako eta basogintzako lurralde plan sektoriala aintzat hartuz, aldaketa puntualak jasotzen duen erabilerak aldaketa bat letorke LPS horrekin; izan ere, gaur egun ia osorik ageri da “balio estrategiko handiko” gisa, eta hein txikiago batean “trantsizioko landa paisaia” gisa. Azkenik, nahiz eta aurreko puntuetan deskribatu denez aldaketa puntualaren eremuak zenbait lurzati biltzen dituen, oso garrantzitsua da adieraztea aldaketa puntualak gaur egun honela ageri diren zonei baino ez liekeela eragingo:

– “J.1.4. Babes bereziko zona: baso balioa”

– “J.2.4. Zaindutako zona: baso interesekoa” (zati oso txiki bati eragiten dio aldaketa puntualaren eremuan).

Eta kategoria honetan sartuko lirateke:

– “J.2.5. Zaindutako zona: nekazaritza eta abeltzaintza interesekoa”

Ildo horretatik, aldaketa puntualaren eremuan ez litzateke eragingo kategoria hauei:

– “J.1.7. Babes bereziko zona: azaleko urak”

• Natura 2000 Sareko Zadorra ibaiaren ibai espazioari eragin lekizkiokeen ondorioak arinduko lituzkeen “tanpoi” zerrenda horrek bere horretan iraungo luke, kategoria hori ez litzatekeelako aldatuko. Ildo horretatik, funtsezkotzat jotzen da udalak J.1.7 zona horretan bere udal plangintzan baimendutako erabilerak zorrotz betetzen direla zaintzea; honako hauek, hain zuzen ere: “EAEko ibai eta erreka ertzak antolatzeke lurralde plan sektorialeko (isurialde mediterraneo) F.1 atalean uholdeei aurrea hartzeko eta ingurua babesteko aurreikusten direnak”

– “J.2.2. Zaindutako zona: interes historiko eta kulturalakoa” (Mendibilgo iturria).

• Aldaketa puntual honek ez luke kategoria hau aldatuko eta, beraz, ez da eraginik espero Mendibilgo iturria ondare elementuaren gainean.

Azkenik, aldaketa puntualari esker, 3 poligonoko 1295 lurzatian, behintzat, baso mintegi bat ezarri ahalko litzateke, hori baita Arratzua-Ubarrundiako Udalarekin batera aztergai dugun aldaketa puntuala sustatu duen sustatzaile partikularraren asmoa. Ingurumen dokumentu estrategikoan esaten denez, mintegi bat eraikitzeak inpaktuak sor litzake lurzoruaren okupazioan, paisaian, eta zarata eta airearen kutsadura sortuko lirateke. Hortaz, nahiz eta 1295 lurzatiak landaretza autoktonoa daukan eta gaur egun lehorreko laboretarako erabiltzen den, ingurumenean integrazeko neurri batzuk ezarri beharko dira, hurrengo puntuan zehaztutako moduan.

4. Ingurumen baldintzak

ingurumen dokumentu estrategikoan jasotako prebentzio eta zuzenketa neurriez eta haien ingurumen jarraipenaz gain (10. eta 11. puntuak), zeinak egoki eta aldaketa puntualaren xedearen proportziokotzat jotzen baitira, hirigintza dokumentuak babes eta zuzenketa neurri hauek aztertu beharko ditu bere berariazko araudian sartzeko:

– Ingurune hidrikoari lotuta dauden kontserbazio bereziko eremuetarako (KBE) eta hegaztien babes bereziko eremuetarako (BBE) arau orokorrak onesten dituen martxoaren 17ko 34/2015 Dekretua kontuan hartuta, hau hartu behar da aintzat:

• “Landa eremuari dagozkion ertzetan gutxienez 50 metroko atzerapena errespetatuko da mugatze lerrora edo administrazio hidraulikoak definitutako gehienezko ohiko uholde lerrora edo ibilguaren ezpondaren burura, dagokionaren arabera. Atzerapen hori lur naturalaren alterazioa dakarten esku hartze guztietan aplikatu beharko da (eraikinetan, mota guztietako instalazio edo eraikuntzetan, finko nahiz desmuntagarrietan; lur berdinketa edo mugimenduetan, eta abarretan). Salbuespen izango dira obra publikoei edo azpiegitura instalazioei dagozkienak edo ondare kulturala babestera bideratutako ekintzak, behar bezala justifikatutakoak”

Ido horretatik, aldaketa puntualaren eremuan planifikatzen den instalazio edo eraikin orok (negutegia, tresnertzako etxola, etab.) arestiko paragrafoan deskribatutako 50 metroko atzerapen hori errespetatu beharko du.

– Zorrotz bete beharko da “J.1.7. Babes bereziko zona: azaleko urak” kategoriaren araudia Zadorra ibaiaren eta aldaketa puntualaren ondorioz “J.2.5. Zaindutako zona: nekazaritza eta abeltzaintza interesekoa” kategorian sartuko litzatekeen zonaren artean dagoen “tanpoi” zerrandan.

– Zaindu beharko da aldaketa puntualaren eremuan lurra mugitzeko edo eraikinak eraikitzeke egindako esku hartze oro paisaia integratzen dela; horretarako zuhaixka eta zuhaitz autoktonoak landatu beharko dira, ahal den neurrian jarduketa horiek mimetifikatzeko moduan.

– Aldaketaren edozein eremutan lurra atera behar bada, landare lurrari dagozkion horizonteak era selektiboan aterako dira, eta, onena, berehala birbanatzea edo, ezinezkoa balitz, metatzea litzateke. Lur metak gehienez bi metro eta erdi izango ditu altueran, eta ebakidura trapezoidaleko masatan pilatu beharko da. Landare lurra, lehentasunez, gainazaletako landaretza eta lurzorua lehengoratzeko lanetarako erabili beharko da, aldaketa gai diren lurzatietan bertan edo haien ondo-ondoan.

– Obrek irauten duten bitartean, lubrifikatzaileak edo erregaiak biltegitzeko ontzi estankokoak, biltegi iragazgaitzak edo bestelako sistemak erabili beharko dira. Debekaturik dago erabilitakoak isurtzea: baimendutako kudeatzaile bati eman behar zaizkio. Debeku hori beste hauetara ere hedatzen da: hormigoi hondakinak, eraikuntza materialak, lurra eta abar; horiek guztiak hondakindegia edo zabortege baimendutara eraman beharko dira. Bide zoruak kentzean ateratzen diren eraikuntza eta eraipen hondakinak Eraikuntza eta eraipen hondakinen ekoi-zpena eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatu behar dira.

Horrenbestez, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 40. artikuluan ematen dizkidan eskumenez baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arratzua-Ubarrundiako (Mendibil) Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntualari buruzko ingurumen txosten estrategikoa egitea.

Bigarrena. Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea betetzeko, ingurumen txosten estrategikoa ingurumen irizpen erabakigarria izango da neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Agintzea ingurumen txosten estrategiko hau ALHAOn argitara dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 30a

Ngurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO

Ngurumen eta Hirigintzako zuzendaria

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA